

19-20

MEMORIA

**iraganari begiratu
eta hartatik ikastea**



**LAUAXETA
IKASTOLA**

/AURKIBIDEA

00 AURKEZPENA

07 FITXA TEKNIKOA

13 HEZKUNTZA DATUAK

45 KUDEAKETA DATUAK



**UNAI
ATRISTAIN**

Artezkaritza Kontseiluko lehendakaria

Ez da espezierik indartsuena bizirauten dauana, ezta bizkorrena ere, baizik eta aldaketari ondoen erantzuten diona.

Charles Darwin (1809-1882)

Darwinek munduaren ikuspegia aldatzen du. Darwinen teoria onartzeak giza espeziea adin-nagusitasunera sartzea ekarri du. Eskutik helduta eramango gaituen inor ez daukagula ulertarazten digu, eta ez dagoela inon nora iritsi behar dugun eta nondik nora joan behar dugun ezartzen duen plan transzendenterik ez naturaz gaindikorik.

Naturan bakarrik gaudela onartu behar dugu, eta egiten dugun guztia gure erantzukizuna dela.

Ildo horretan, Bertrand Russellek esaten zuen, zoriontsu izateko, pertsonak ez dutela honetaz edo besteaz gozatzea soilik, baizik eta itxaropena, ekimena eta aldaketa osagai ezinbestekoak ditugula.

Rutger Bregmanek gure nahigabea kontsumitzeari uzteko eskatzen digu, inkesten eta albiste txarretan etengabe zentratutako komunikabideak bitarteko dirala. Ez dago ametsik daukaguna baino mundu hobea imajinatzea bultzatzen gaituenik. Izan ere, herrialde aberatsetan, biztanle gehienek uste dute seme-alabak haiek baino okerrago egongo direla.

Horretarako, Bregmanek mugatzen gaituen gure garaiko espiritu hori lortzera bultzatzen gaitu eta gure idealismo partekatua aitortzera. Garai zoragarri batean bizi garela ohartuko gara, gero eta gose eta gerra gutxiago dagoen garai batean, oparotasuna eta bizi-itxaropena areagotzen ari diran garai batean.

Baina ikusiko dugu, baita ere, zenbat geratzen zaigun egiteko.

Aurrera egiten jarraitzen dugu, oraindik egiteko asko dagoela jakitun.

Aurrera!

Unai Atristain Aranguren- Artezkaritza Kontseiluko lehendakaria



**AITOR
PAGALDAI**

Zuzendari Orokorra

Pauso bat aurretik

2019-20 ikasturtea berezia izan da eta emozionalki oso bizia. Gure bizitzatan aldaketa handia suposatu duen ikasturtea eta hezkuntza arloan ere paradigma aldaketa bat ekarri duena.

Ezer baino lehen, ikasle, familia, irakasle eta irakasleak ez diren Ikastolako pertsonen, hilabete hauetan zehar ikasketa prozesuarekiko erakutsi duten konpromiso eta profesionaltasuna eskertu nahi diet. Honi esker, 2019-2020 ikasturtea arrakastatsua izan dela esan dezakegu.

Arrakastatsua ez soilik ikasleen ikasketa emaitzak onak izan direlako. Arrakastatsua batez ere, ikasleek ikusi eta esperimentatu ahal izan dutelako, ikasketa prozesua, Ikastolara egunero joatea baino askoz ere gehiago dela. Ikasleek 100% online ikasketa zer den era arrakastatsu baten bizi ahal izan dute (etapa bakoitzaren behar izanetara moldaturik), zeharkako kompetentzien garrantzia (soft skills) sakondu dute, ikasketa modu eta aukera ezberdin asko daudela ikusi dute, etab. Haien ikasketa prozesuan etorkizunera egindako salto txiki bat izan da. Jauzi garrantzitsu bat, eta jauzi hau familien eta Ikastolaren babes emozionalarekin egin da.

Ez daukagu zalantzarik, 2019-2020 ikasturtean egin ahal izan den erantzun digital eta metodologiko hau, aurreko urteetan zehar egindako hezkuntza lan bikainari esker izan dela: ikasleak poliki poliki ikasketa eremu digitaletara egokitzen eta ohitzen joan izana, berrikuntzaren alde egindako apostua eta hezkuntza berrikuntzan egindako inbertsioak adibidez, ezinbestekoak izan dira. Pauso bat aurretik joan izana izan da alegia, beharra sortu denean prest egotea ahalbidetu duena.

2020-2021 ikasturtea ere, bizi eta emozionalki gorabeheratsua izango denaren itxurarekin dator. Beti bezala ahalik eta hoberen egiten saiatuko gara; osasun emozionala eta fisikoa bermatuko ditugu eta hezkuntzarekiko konpromezuz eta profesionaltasunez arituko gara. Lortuko dugula argi dut. Eta lortuko dugu, beti bezala, ikasle, familia eta Ikastolaren arteko elkarlanaren bitartez.

Besarkada bat,

Aitor Pagaldai- Director General



Artezkaritza Kontseilukideak, ezkerretik eskumara eta goitik behera:
Mikel Pagonabarraga, Gentzane Aldekoa, Koldo Meso, Iratxe Olabarri, Iñaki Isasi, Inazio Aldazabal,
Unai Atristain, Nerea Martiartu, Juan Mari Totorika, Nerea Lupardo eta Iurdana Izurza.

Zuzendaritza kideak, ezkerretik eskumara eta goitik behera:
Jon Agirre, Iñaki Malaxetxebarria, Miren Munitis, Xabier Arpide,
Edurne Zamalloa eta Aitor Pagaldai.


Talde lana

FITXA TEKNIKOA

01

01 FITXA TEKNIKO

“**Pertsona garatuz gizartea eraikitzen**
 Personal development to build a society
 Desarrollo personal para construir sociedad



1.660 y 1.009
 ikasle familia

116
 langile

20.350m²
 kanpoko kirol
instalazioetan

6.200m²
 kirol instalazio
estaltetan

89.225m²
 lursailetan

12.200m²
 ikasgeletan



HEZKUNTZA DATUAK

22

02 HEZKUNTZA DATUAK

Lauaxeta Etxetik: aldaketara egokitzea

Egokitzapena eta aldaketaren kudeaketa, funtsezko trebetasuna dela deritzogu, bai eremu pertsonalean, aldaketak aurreikusteko, aztertzeko, horiei aurre egiteko eta horietara egokitzeko; baita antolaketaren ikuspegitik ere, erakunde guztiek gizartearen, sektorearen, bezeroen eta lan-ingurunearen aldaketetara eta erronketara egokitzeko gaitasuna izan behar baitute.

Trebetasun hori, zalantzarik gabe, guztiok jarri behar izan dugu jokoan 2019-2020 ikasturtean, batez ere hirugarren hiruilekoan, COVID-19aren errealitatea gure inguruan agertu zenean.

Ikasleek, familieek, irakasleek, irakasle ez diren langileek, zuzendaritzak... ahalegin handia egin dugu egoera hori kudeatzeko eta, aldi berean, egoera horretatik ikasteko, eta beste behin ere, taldea eta komunitatea egitea oso garrantzitsua dela erakutsi dugu, gure ikasleei eta seme-alabei ikasketa prozesu honetan eusteko eta laguntzeko neurriak hartuz.

Prozesu hori, zoritxar asko bezala, ustekabeen iritsi zen, baina ikaskizun asko ekartzeko ahalmenarekin. Bizitako esperientzi guzti honekin, **COVID-19 belaunaldia, aldaketarako belaunaldia izan daiteke zalantzarik gabe.** Zentzu honetan, honako Memoria hau, egindako lana eta ahalegina goraipatzeko eta balioan jartzeko ere aprobetxatu nahi dugu.

Konfinamendu bitartean, esparru berri honetan hainbat jarduera egin ziran, bere garaian #LauaxetaEtxetik izena eman geniolarik. Jarduera horiek distantzian egin ziran, teknologiek gure arteko distantzia laburtzeko duten gaitasunaz baliatuz, aurrera egiteko eta elkarren ondoan sentitu nahiean. Zoom-en saioetatik eta eskola edukietatik harago, **honako adibide hauek, urrutiko lotura horren adibide txiki bat baino ez dira:**




Ikastola etxean
<https://cutt.ly/sgzVG1f>



Covid Lauaxeta Challenge:
<https://cutt.ly/agzBpag>




Covid HH-LH- Aurrera!
<https://cutt.ly/lgzBjs9>




Ez gaitu inork geldituko
<https://cutt.ly/9gzB8mM>



Egunero zortziretan
<https://cutt.ly/VgzNela>







Dana ondo irtengo da
<https://cutt.ly/MgzNi9y>



Oporretarako agurra
<https://cutt.ly/kgzNUGu>



Aipatzekoa da, halaber, derrigorrezko konfinamendu-egoera dela eta, Memoria honetan Lauaxetako ikasleek beste edizio batzuetan parte hartu ohi duten zenbait jarduera eta esperientzia faltan bota daitezkeela. Lauaxetaren ekimen propioez ari gara (Zientzia eguna, truke-esperientziaren bat, ikastolako jaia, agur jaia,...), bai eta kanpoko eragileek proposatutako esperientziez ere (Elhuyar zientzia azoka, EHUko matematikako udaberriko lehiaketa, Olinpiada matematikoak, kristalizazio-lehiaketa, ...). **Horietako batzuk berrasmatu eta egoera berrira egokitu ziran, eta beste batzuk, sortutako egoera dela eta, atzeratu egin behar izan ziran.**



Gaitasunei lotutako garapen pertsonala

Gizarte global, konplexu eta aldakor batean bizi gara, eta gure hezkuntza-erronka gure ikasleak testuinguru horretan planteatzen diren egoera eta helburuei aurre egiteko prestatzea da, haiengan dagozkion gaitasunak garatuz. Hala izanik, zein da **Lauaxeta Ikastolaren Hezkuntza Eredua**?

Psikologia positiboa, etengabeko ikaskuntza, sormena, arazoak ebaztea, esperientzian oinarritutako ikaskuntza, iraunkortasuna, gaitasunak, familiaren eta ikastetxearen arteko lankidetzalana ... dira gure hezkuntza-ereduaren osagaietako batzuk, eta hitzetatik eta asmoen adierazpenetatik harago, horren adibide eta ebidentzia ugari eskaintzen ditugu, bai gure blogean jasotako berrietan, bai urtero egindako jarduera nagusiak laburbiltzeko asmoz argitaratzen dugun memoria honetan.



Gure Hezkuntza Ereduaren zehaztapen gehiago izateko:
<https://bit.ly/2CtR1ki>



Think S(h)are

Lauaxetan diseinatutako Think S(h)are proiektua Haur eta Lehen Hezkuntzako hezkuntza-plana da, eta haren helburu eta kontzeptu garrantzitsuenei zor die izena: Think = Pentsatu, Share = Partekatu, Sare = Trebetasunen eta ezagutzen sarea.

Helburu nagusia hezkuntza-tresna berritzaileak eskaintzea da, XXI. mendeko korrante pedagogikora egokitzeko eta datozen belaunaldien beharrei erantzuteko. Gaitasunen araberako hezkuntzaren erreferentzia-esparrutik abiatuta, Think S(h)are proiektuak curriculum, didaktika eta metodologia aberasteko tresnak ematen ditu, curriculumaren eduki tradizionalak gaindituz.

Hona hemen Think s (h) are proiektuak jasotzen dituen programa didaktikoak:



HitzHartu+irakurketa plana

Garapen komunikatibo eta linguistikorako programa (hizkuntzen trataera bateratua)



BiziMat

Garapen logiko-matematikorako programa



TIC-TAC-TEC

Robotikaren hastapenak eta gailu digitalen erabilera



Sormen+ArtezArte

Garapen sortzailerako programa multidiziplinarra: plastika, arkitektura, eskultura, pintura, zinema eta ikus-entzunezkoak, bertsolaritza,...



Ikerlari

Garapen zientifikorako programa (natur eta gizarte zientziak)



GASE

Garapen sozioemozionalerako programa



Filosofia

Ikasten eta pentsatzen ikasteko programa: gaitasun filosofikoaren eta pentsamendu-trebetasunen lanketa



Psikomotrizitatea

Garapen motorrerako programa

Filosofia, meditazioa eta espiritualtasuna

Filosofiako programa 4 urtetik aurrera garatzen dugu eta **haurren jaiotzetiko jakinmina aprobetxatu nahi du, hura sustatuz eta pentsamendu gogoetatsu eta eraginkor baterantz bideratuz, zalantzan jarritz, dilema moral eta transzendentalei buruzko eztabaidaren bidez eta auto-hausnarketa eta ko-hausnarketa erabiliz.** Helburua sentsibiltatea eta konpromisoa garatzea da, inguruan duten guztia aztertzeke eta ezagutzeko kezka handia duten pertsonak izan daitezzen. Horretarako, ezinbestekoa da “maieutikaren” lana, ikasle bakoitzak duen egiari eta ezagutzari balioa emanez. Horrela, pentsamendu independente, sortzaile eta dibergentea piztuz eta banakako gogoeta-ekoizpena errespetatuz, ideien “egia” eta “kontzeptualizazio mugatua” gaingidituz.

Esparru horretan, eta COVID-19ren itxialdian murgilduta, **erronka bat jarri genien Lehen Hezkuntzako ikasleei: 5 galdera filosofiko pentsatzea eta beste ikasle batzuekin partekatzea.** Ondoren, ikasleek eurek ematen zieten botoa galdera onenei. Horien artean, **Markel Gil, Iria Azkueta, Eider Aburto eta Ane Bilbao (Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailakoak)** hautatu zituzten galdera interesgarrienak egin zizkiguten filosofo bezala.



Galdera filosofikoak:
Bideo honetan egindako galdera batzuk bildu ditugu:
<https://cutt.ly/Bgm5860>



Filosofoa irabazleak:
Markel Gil, Iria Azkueta, Eider Aburto eta Ane Bilbao, Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailakoak, galdera interesgarrienak eta gehien pentsarazi zigutenak planteatu zituzten filosofoak izan ziran.

Bestalde, **espiritualtasuna, zentzu zabalean hartuta, bakoitzaren barne kontu bat da. Pertsona eta bizitzaren zentzuari oso lotuta dago, eta horregatik uste dugu garrantzitsua dela pertsonaren beste dimentsio bat bezala lantzea, gure ongizatean, orekan eta erabateko garapenean laguntzen duen heinean;** bakoitzak bere burua deskubritzea eta norbere existentziari zentzua ematen dioten balioen identifikazio eta indartzea bultzatuz.

Espiritualtasuna lantzen dugu, bakoitzak horri buruz duen orientazioa eta aukera pertsonala errespetatuz, baina dimentsio hori gu guztion pentsamenduaren aspektu bat eta garatu beharreko dimentsio bat dela ulertuta.

Horrela izanik, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek, aldizka, besteak beste, yoga edo meditazio saioak egiten dituzte Filosofia irakasgaiaren esparruan.



Meditazio saioak:
ikaslegan garatutako meditazio saioak.



Yoga saioak:
Naturarekin kontaktuan egindako yoga saioak, gure instalazioek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuz.



Laia, eskola ortua eta km0

Laia edo eskola-baratzearen proiektua Lauaxeta Ikastolako Agenda 21 taldearen ekimena da. **Proiektu horri esker, besteak beste, hauek lantzen dira: naturarekiko harremana, km-0 ekoizpena eta ekoizpen ekologikoa, tokiko barazkiak eta landareak kontsumitzeko aukera, elikadurak gure osasunean duen eraginari buruzko kontzientzia eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak sustatzea.**

Dedikazioa, lana eta pazientzia, eta egindako lanaren fruituak jasotzeko konfidantza: kalabaza, porru, aza, tipula, brusela aza, ilarak... Hori guztia Lehen Hezkuntzako ikasleei eta bildutakoaren zati bat erosi zuten familiei esker. Ondorioz, gure nekazari txikiek nekazaritzako tresnak berritu ahal izan dituzte. Joan den ikasturtean, gainera, gure urriko azoka berezia egin zen, eskolako baratzean bildutako produktuak salgai jarri. Esperientzia oso aberasgarria izan zen parte hartu zuten ikasleentzat, eta, ondorioz, azokak edizio bat baino gehiago izan zuen.


Bere burua finantzatzeko, baratzean jasotako guztia familiei eta irakasleei eskaintzen zaie, baita GASCari, ikastolako bertako sukaldaritzari eta jatetxeren bati ere.

20.000 datu inguru lortzen dituzte. Ondoren, beste ikasle batzuek, matematika-arloa inplikaturik, datu horiek aztertu beharko dituzte. Perretxikoak laborategian aztertzen dira, eta, orainoan, Batxilergoko ikasleek aztertzen dituzte. Horrela, Biologia arloa inplikatzeko da, eta prozesu osoari esker, Batxilergoko ikasleek, Ekonomia arlotik, ondorioak ateratzen dituzte ikasitako guztia ekonomia zirkularrarekin lotuz.

Funghi Thinking proiektuaren inguruko azalpen-bideoa: goo.gl/yt3qh9



Eskola-baratzearen bidez, halaber, elikadura natural, hurbil eta lokal baten garrantzia barneratzen laguntzen da, eta, horrela, gure ikasleengan ohitura osasungarriak garatzea ere azpimarratzen da. Alderdi horietan ere eragin dugu, beste ekimen batzuen bidez, hala nola honako hauen bidez:



Ekosistema

Healthy bites


Zuhaitz Eguna 2.0.

Gasca

Eremu horretan, Funghi Thinking proiektua ere aipatu behar da. Munduko Ekonomia Foroak sortutako Global Shapers Bilbao gizarte berrikuntzarako elkarteak bultzatu eta gidatutako proiektu aitzindaria da. Bertan, ikasleek hainbat ikaskuntza integratzeko aukera dute, kafe-hondarretatik perretxikoak (Pleurotus Ostreatus) nola lortu ikasteaz haratago. Proiektuak adin-tarte handiko ikasleak inplikatzeko ditu, Lauaxeta Ikastolako Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko neska-mutilak hartzen baititu.

Txikienak, Zientzien arlotik, lehen laborantza lanak egiteaz arduratzen dira, kafe posoak mikelioarekin nahastuz. Bigarren Hezkuntzako ikasleek, orainoan Teknologiaren alorretik, kontrolatzen dute perretxikoak lortzeko beharrezkoak diren tenperatura- eta hezetasun-baldintzak betetzen direla, programazio-eragileak aprobetxatuz. Arduino-plakak eta aldagaiak etengabe neurtzen dituzten sentsoreak erabiltzen dituzte, eta 2 asteko aldi batean


Greenpeaceen eskutik, gure jarduerak ekosisteman duen eraginari buruz hausnartzeko aukera izan zuten Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek pintxo osasungarria sortu eta aurkeztu behar zuten. Orainoan gainera, erabat konfinatuta egin zuten, etxeko sukaldeetatik eta sormena erabiliz. Konfinatzeak ez zuen eragotzi Zuhaitz Eguna ospatzea. Kasu honetan, formatu digitalean, ikasleek etxeko energia aurrezteko moduak ikasi zituzten eta horiekin guztiekin mosaiko bat sortu zen. GASCara bisitak eta ikasleek ikastolan bertan elikadurari buruz jasotako hitzaldiek ere elikaduraren inguruan hausnartzeko aukera eman ziguten.



L Digitala: Ikasketa Pertsonalizaturako esparrua

Gure ikasleen garapenak kontuan hartu behar du, zalantzarik gabe, haien gaitasun digitala garatzea. IKTek, gainera, arlo desberdinetako hezkuntza-edukiak hedatzeko laguntza eta baliabidea emateko funtzio nagusia dute.


Gaitasun digitala ez da soilik gailu eta tresna digitalen ezagutzari eta erabilerari buruzkoa, baita horien erabilera etikoari buruzko hezkuntza ere: identitate digitala, plagio-kontzeptuak, delitu informatikoak, etab. Hori horrela izanik, ikasturte honetan hainbat jarduera garatu ditugu, hala nola:



TIC-TAC-TEP programa, Haur Hezkuntzan: IKTen erabilera ikasketa helburuetan oinarrituta dago. 5 urtekoen geletan Robota erabiltzen da, ikasleak programazioaren munduan barneratuz.



Science proiektua, Lehen Hezkuntzan: Natur Zientziak ikasgaia ingelesez, erakargarriak diran eduki eta appen bidez, ikasketa esanguratsuagoa lortuz.



1x1 iPad proiektua, Lehen Hezkuntza 4. eta DBH 3. mailatan: iPada erabiliz, iTunes U, Moodle, eta bestelakoetan dagozan edukiak lantzen dira.



iPadaren inguruko formazio saioak: langile, familia eta beste ikastetxe batzuei zuzendutako formazio-informazio saioak.

Atal honetan aipatzekoa da **DBHko eta Batxilergoko ikasleen ikaskuntzaren portfolio pertsonalizatua**. Bertan bakoitzak bere ikaskuntza-ibilbidea jasotzen du eta ikasle egindako proiektuak, aurrerapenak eta planteatzen den hobekuntza laburbiltzen ditu.

Zientzia eta teknologia

Zientzia eta teknologia funtsezko bi zutabe dira Lauaxeta Ikastolan. Metodo zientifikoaren arabera etengabeko lana, esperimentazioa ikaskuntza-iturri gisa, eta abar, ikasleek beren adin guztietan garatzen dituzten proiektu ugariaren oinarria dira: **Haur Hezkuntzako ikasleek mundu naturala aztertzen dute Ikerlari programatik, Lehen Hezkuntzan Science programatik, ingelesezko proiektu zientifikoaren alde lan egiten dute eta DBHn Zientziak kalean programatik** abiatuta, esperimentaziora lanztzen dute. Gainera, dibulgazio eta esperimentazio zientifiko eta robotikako eta programazioko jardunaldi espezializatuak egiten dira Lehen Hezkuntzatik. Atal honetan, 2019-2020 ikasturtean, besteak beste, honako jarduera hauek egin dira:



First Lego League: Beste behingoz, Lauaxeta Ikastolako ikasleak First Lego Leagueko edizio berri batean elkartu ziren, beste ikastetxe askotako ikasleekin batera. Gure ikasleak gazteen artean zeudelako nabarmendu ziren topaketa honetan.

Informazio gehiago:
<https://cutt.ly/vglPNB2>




Open Science: Arantza Berasategui, Olatz Fernández, Inés Hernández, Naia Gallastegi, Oier Gallastegi, Ayelen Adrián, Uxue Veiga, Maialen Miera, Arantza Alvarez, Iñigo Salvador, Unai Zarraga, Elaia Artabe, Izaro Etxebarria, Ander Calvo, Jon Lorenzo, Ekaitz Roman eta Aimar Pagonabarraga izan ziren esperientzia honetan parte hartu zutenak eta ohorezko aipamena lortu zuten Ander Calvo, Jon Lorenzo, Ekaitz Roman eta Aimar Pagonabarragaren lanek eta lehen saria Arantza Berasateguik eta Olatz Fernandezek. Zorionak guztioi!



Ciencia Show: Asier Albizua final aurrekoaren irabazleak eta Jokin Mena ikasleak, Estatuko finalean parte hartu zuten.

Informazio gehiago:
<https://bit.ly/34XRhUL>



Feria Exporecerca: Elene Cascanek, Maria Zarrabeitiak eta Leire Gallegok (DBH 2) Diari Ara saria, Fundació Barça saria, La Caixa Gizarte Ekintza saria eta Exporecerca Jove hirugarren saria eskuratu zituzten. Ane Ruizek eta Irene Alonsok, DBHko 3. mailakoak, Diari Ara saria eskuratu zuten.

Informazio gehiago:
<https://cutt.ly/FglAj5A>



Arlo honetan aipatzekoa da Jule Infante, Lauaxeta Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikaslea, **bere ekimenez aurkeztu zela Bilbao Maker Faire lehiaketara, eta Maker Faireren Hebocon saria irabazi zuela bere robotarekin.**

Azkenik, ezin dugu aipatu gabe utzi Inspira proiektua, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan garatzen dena. Bertan, ikasleek gogoeta egiteko aukera dute kanpoko mentore batzuekin, ikerketa, zientzia eta teknologiaren munduko emakume profesionalekin, Steam bokazioak (Zientziak, Teknologia, Ingeniaritza, Arte-Sormena eta Matematika) bultzatzeko helburuarekin.

Literatura eta sormena

Norberaren ideiak adierazteko eta komunikatzeko gaitasuna gaitasun garrantzitsua da, bai gaur egun, bai gure ikasleen etorkizunean.

Lehen Hezkuntzako 1. mailan, Hitzartu programaren bidez, haurren berezko diskurtso-sormenerako espazioa eskaintzen da. Helburu nagusia diskurtso eta testu mota desberdinen garapenean murgiltzea da, jolasen eta dinamika ludikoen bidez, haien diskurtso-gaitasuna hobetzeko, hizkuntza, erretorika, estilo-baliabide ugari eskuratuz.

Ilido horretatik, 2019-2020 ikasturtean honako esperientzia hauek garatu dira:



Arrazakeriaren aurkako ipuinak:
Oraingo edizio honetan, arrazakeriari buruz hausnartu genduan. Mikel Maguregi Atutxa, Kattalin Zuazo, June Ormazabal, Aiala Bilbao Olabarri eta ikasleek jaso zuten saria. Aipamen bereziak Jon Vegas Zugazagarentzat eta Izaro Pagalday Aburtorentzat izan ziran.

Gela huts bateko mikrokontakizunak:
Batxilergoko 2. mailako ikasleek konfinamendu sasoian egindako mikrokontakizunen bilduma bat dugu. Agerian geratu zen, gelak hutsik egon arren, inspirazioak eta sormenak ez dutela aterik.

Mikrokontakizunak ezagutzeko:
<https://cutt.ly/dgz6rG1>



Era berean, Lauaxetako Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleen ipuin-kontalariei lana ere aipa dezakegu, euren ikusle eta entzuleak, aurreko ikasturteetako Lehen Hezkuntzako ikaskideak direlarik.

Gure kulturari balioa emanez

Ikasleek beren bizitzan garatzen dituzten gaitasunetatik haratago, **baloreak funtsezko oinarria dira** beren jardunean. Balio horien artean, eta Lauaxeta Ikastola, Hezkuntza euskalduna eskaintzen duen ikastetxea izanik, **garrantzitsua iruditzen zaigu geure kultura ezagutzea eta baloratzea, eta mundura irekitzea, baina norberaren aberastasuna aitortzeko aurretiazko urrats horrekin.**

Hori dela eta, eremu horretan honako jarduera hauek garatu dira:



Euskaraldia:
Lauaxeta Ikastolan hainbat jarduera garatu ziran Euskaraldiaren barnean: Zuzendaritza eta ikasleen arteko topaketak, Txantxangorriaren txapel banaketa, Zuzentzailea koadernoak, Euskaraldia abestiaren eta dantzaren antzezpena, etab.

Urruzunotarrak:
Hezkuntza Departamentuak Urruzunotarrak literatur lehiaketaren irabazleak jaso zituen. Besteak beste, June Silva eta Irune Huerta. Zorionak!

Euskara Batzordea:
Guztira, 86 ikasle dira Lehen Hezkuntzatik Batxilergora, Euskara Batzordea osatzen dutenak, eta beren borondatez lan egiten dute euskararen erabilera bultzatzeko, bai eta ikasturtean zehar helburu horrekin antolatutako jarduera askotan laguntzeko ere.

Atal honetan aipa dezakegu, halaber, **Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek beren sormena, komunikatzeko gaitasuna eta, nola ez, euskara garatzen dutela bertsolaritza jardueraren bidez.** Joan den ikasturtean, 5. mailako ikasleekin bertsoak partekatu zituzten, datorren ikasturtean Bertsolaritzara joateko aukera izango baitute.



Mundura zabalduz: hizkuntzak

Gure ikasleen garapena helburu dugun heinean, ikastolak hezkuntza eleaniztuna garatzen du, eta horrek esan nahi du gure ikasleak gaituta egongo direla gutxienez hiru hizkuntzatan komunikatzeko (euskara, gaztelania eta ingelesa) eta, gainera, beste hizkuntza batzuen ezagutza izango dutela (frantsesa edo alemana).

Hizkuntza	Haur Hezkuntza (2-6 urte)	Lehen Hezkuntza (6-12 urte)	Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)	Batzilergoa (16-18 urte)
Euskera	Eskola curriculumaren barne. Errefortzua Haur Hezkuntzan			
Gaztelera		Ikasgai espezifikoa LH 1.tik aurrera		
Ingelesa	Ikasgai espezifikoa 4 urtetatik			
		Science eta Speaking, ingelesez	Gizarte zientziak	Hautazko ikasgaiak, inglesez
Frantsesa			Hautazko ikasgaia 14 urtetatik	
Alemana			Hautazko ikasgaia 14 urtetatik	

Lauaxeta Ikastolan, hizkuntzen irakaskuntzaren ikuspegi funtzional eta komunikatiboa daukagu. Ildo horretan, ingelesezetik harago, hainbat irakasgai ematen dira hizkuntza horretan ikastolan, eta, horrela, ikasleen komunikazioa bultzatzen da ingelesaren erabileran.

Bigarren Hezkuntzako etapatik, ikasleek Cambridgeko azterketa ofizialak egiteko aukera dute ikastolan bertan, eta, horretarako, ingeleseko irakasleek ikasle bakoitzari orientazioa ematen diote, daukan mailaren arabera, akreditazio baterantz edo besterantz bideratuz.

Gainera, English Team taldea, ingeleseko irakasleez eta hizkuntza horretan emandako beste irakasgai batzuetako irakaslez osatua dago, eta une bakoitzean, ingelesaren inguruan ikastolan garatu beharreko jarduera guztiak definitzeaz eta koordinatzeaz arduratzen da, haur-etapatik batxilergora arte ingelesa garatzen laguntzeko.


Europa mailako proiektuak

Errealitateak erakusten digu mugak gero eta lausoagoak direla. **Horregatik, ezinbestekotzat jotzen dugu gure ikasleen hezkuntzak nazioarteko ikuspegia integratzea.**


Ildo horretan, 2019-2020 ikasturteari dagokionez, honako esperientzia hauek azpimarra ditzakegu:



European Youth Parliament: topaketa horretan, ikastetxe eta estatu desberdinetako ikasleek Europako legediari buruzko hainbat gai defendatu behar dituzte ingelesez eta hiru minutu eskasean. Uxue Castro, Aimar Pagonabarra, Paula Balzategi, June Jauregibeitia, Iker Querejeta eta Iñigo de la Ossa eskualde-fasean bildu ziren.



Brujasera elkartrukea: Lauaxeta Ikastolako DBHko 4. mailako ikasleek parte hartzen duten truke-programa bat dugu.



Truke digitalak, truke errealak: oraingo honetan, trukea Kanadako institutu batekin egin zen, lehenago Lauaxetako ikasleek gutun pertsonalizatuak bidali zizkietelarik. Horiei erantzunez, Lauaxetako ikasleek kutxa bat jaso zuten postalekin eta opariekin, eta elkarriketak izan zituzten Skype bidez.



Bestelako trukeak: La Rochelle eta Danimarkako truke-esperientziak ezin izan ziren gauzatu, konfinamendu-egoera zela eta.

Atal honetan, halaber, Batxilergo duala aipatu behar da. Horren arabera, ikasleek bi titulazio lortzen dituzte aldi berean: ikaslearen jatorrizko herrialdeko batxilergoko titulazioa (aurrez aurrekoa) eta Estatu Batuetako batxilergoko titulua edo High School Diploma (ingurune digitalean).



Udin: diziiplina anitzeko proiektuak

Lauaxeta Ikastolan, UDIN izeneko taldeen bidez, Diziiplina Anitzeko Unitate Didaktikoak lantzen dira. Bertan, klaseak eta arloak nahastuz, ikasleek gaurkotasuneko egoera bati erantzun behar diote, ikasitako guztia aplikatuz.

Enpatia, sormena, adierazpen-gaitasuna, autonomia, ikasten ikastea, talde-lana, erantzukizun soziala, ekimena... dira ikasleengan garatzea lortzen dugun gaitasunetako batzuk.

Esparru horretan eta 2019-2020 ikasturteari dagokionez, diziiplina arteko unitate hauek azpimarra daitezke:



“Kultur aniztasuna”
1. DBH



“Sexu- eta genero-identitatea”
2. DBH



“Smart Communities”
3. DBH

Era berean, Batxilergoko 1. mailan, Ekintzailatza Proiektua garatu zen. Proiektu horretan, ikasleek beren enpresa sortu behar izan zuten, inguruan dituzten arazoak konpontzeko, Ekintzailatzaren Azokan aurkeztu eta defendatuz.

Atal honetan sartzen dira, halaber, Enpresa-programa (Batxilergoko 2. maila) eta Lanbide-orientaziokoak (DBHko 4. maila eta Batxilergoko 2. maila). Programa horiek esperientzia eta hausnarketa erabilgarriak sustatzen dituzte ikasleek, etorkizun hurbilean beren bizitzetan irekitzen den etapa berriari buruzko erabakiak hartzeko.

Aipatzekoa da DBHn eta Batxilergoan garatutako proiektu horiez gain, Lehen Hezkuntzako ikasleek ere diziiplina anitzeko lana egiten dutela planteatutako proiektuei modu esanguratsuenean eta errealistagoan erantzun ahal izateko.

Informazio gehiago:
goo.gl/RWqYg



Ekintzailatza eta enpresa programa


Arlo honetan, hainbat esperientzia garatu dira 2019-2020 ikasturtean, hala nola:

- **Industria Eguna:** Lauaxeta Ikastola izan zen Industriaren Egunean parte hartu zuen ikastetxeetako bat. Ekitaldi horren bidez, etorkizuneko profesionalei industriaren errealitatea hurbildu nahi zaie, bokazioak pizteko, bereziki emakumeen artean. Ekitaldian, Lauaxetako ikasleek saria jaso zuten beren lanagatik. Ikasleek aldi berean Bizkaiko 33 enpresa erreferente bisitatzeo aukera izan zuten. Lauaxeta Ikastolaren kasuan, ITP Aero Zamudio izan zen bisitatutako enpresa. Teknologia, ekoizpen-prozesuak, lanbide-profilak eta abar ezagutzeko aukera izan zuten. Azken finean, industriaren errealitatea barrutik ikustea, aurreiritzi zaharrak baztertzea eta teknologikoki aurreratuak diren inguruneak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten. Jardunaldi hori amaitzeko, ekitaldi jendetsua izan zen BEC!-en. Bizkaiko hainbat ikastetxetako parte-hartzaileak bildu ziren, eta hainbat erronka planteatu zitzaizkien bertaratutakoei. Hiru ikastetxe irabazleen artean, Lauaxeta Ikastolako ikasleak: Alex Arroyo, Oier Gallastegi, Ekaitz Dominguez, Mikelats Pascal eta Borja Caballero, “Parke eolikoak garatzeko bidean” lanarekin. Zorionak!

Informazio gehiago:
<https://cutt.ly/xgxpTwX>



- **Egin eta Ekin:** Kexuak, atsekabetzen gaituen egoera baten aurrean une jakin bateko desengainua izateaz gain, ez du egoera hori hobetzeko inolako aurrerapausurik ekartzen. Gehienetan gure esku dago parte garen errealitatea hobetzea. Gure ikasleak ideia horretan eta jarrera ekintzaile horrek dakartzan trebetasun guztietan heztea erabakigarria da etorkizunerako. Ideia horretatik abiatuta, proiektu ugari garatzen dira Lauaxeta Ikastolan. Besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiaren Egin eta Ekin programa, DBHko ikasleek parte hartzen dutena. Abenduan eta urtarilean, ikasleek frustrazioarekiko tolerantziari buruzko hitzaldia jaso zuten. Lehenago, sormenarekin zerikusia duen beste bat jaso zuten. Errotik enpresa bisitatu zuten. Horrekin guztiarekin, inguruko behar erreal bati erantzuten zion asmakizun edo enpresa-praktika bat eratu behar izan zuten.



● **Enpresa eta orientazio profesionala programa:** Batxilergoko 2. urteko ikasle guztiek praktikak egiten dituzte enpresetan, etorkizunean egin nahi dituzten ikasketekin lotutako lanbidea ezagutzeko helburuz.

Gainera, bai eurek eta baita DBHko 4. mailako ikasleek ere, orientazio-saioak eta esperientziak jasotzen dituzte. Eskerrik asko, besteak beste, Lankidego, Sarenet, EHU-Facultad de Física, Euskaltel, Ingeteam, CIC Energigune, Bilboko portua, Plastibor, Lointek, Sener, Batz, Maier, Biolan, Velatia, Walter Pack, Ingenieria Padura, Ormazabal, Sidenor, Sistematia Outsourcing, Bigel, Sarenet, VUSA, International Paper, Inargest, Atxurra Zelaieta, Gogara Arkitektura, Quiron, IMQ, Osakidetza, Sendatze fisioterapia, Fisiogihar, Fundación Athletic, Arteta Asesores, Legebide, Albor Cosh, Talleres Gallareta, Deia, Bizitegi, Caritas, Sportech, Eduardo Anitua, Pausa digital, Progenika, Labayru fundazioa, Bizkaiko Foru Aldundia (Itzulpengintza), Fair Saturday, Pangea, Ertzaintza (Polizia zientifikoa), UNESCO, Kulturbide, Arkeologia Sergio eta Gasca.

● **Ekintzailatzako diziplinarteko proiektua:** Batxilergoko ikasleek garatutako proiektua dugu. Bertan, inguruan ikusten duten benetako beharretik abiatuta, horri erantzuna ematen dion enpresa bat sortzen dute eta Ekintzailatzaren Azokan aurkezten dute.

Asko eta oso onak izan ziren aurkeztutako proiektuak eta ideiak, eta Lauaxeta Ikastolako profesionalek eta kanpoko profesionalek osatutako epaimahai batek baloratu eta eztabaidatu zituen.

Egun horietan zehar, ikasleak ikaskuntza-esperientzia batzuetara ere joan ziren. Eskerrik asko Maier, Iddtek, Sergio Alonso Hortz-klinika, Imanol Ituiño, Bigel, Iñaki Egiluz (Markelife) eta Gascari eta lagundu duzuen guztioi, tartean ikastolako guraso askori, guztion artean esperientzia eta ikaskuntza asko baititugu partekatzeko.

Eskolaz kanpokoak, udalekuak eta garapen pertsonala

Lauaxeta Ikastolak eskolaz kanpoko hainbat jardura eskaintzen ditu, ikasleen kezkei eta interesei erantzuteko eta garapen pertsonala bultzatzeko. 2019-2020 ikasturtean eskolaz kanpoko planteamendua berrikusi eta hobetu zen, familiek egindako kezkak eta iradokizunak, eskolaz kanpoko jardueren begiraleen eta arduradunen proposamenak eta Lauaxetako zuzendaritzaren ikuspegia abiapuntutzat hartuta.

Esparru horretan bertan, Jakiundeko Zientzia eta Letren Akademian emandako hitzaldiak aipatu behar dira. Bertan, Lauaxetaren 18 ikaslek hartu zuten parte.





Aipatzekoa da, baita ere, “Ekintza Osogarrien Agenda!”. Lauaxeta Ikastolak eskolaz kanpoko esparrurako biltzen dituen jardueren bilduma bat da, eskola-ordutegian jada garatutakoei esperientziak gehitzen dizkienak. Esperientzia horiek Lauaxetako ikasleak hiruhileko bakoitzean lantzen ari diren edukiei lotuta daude: bisitak, txangoak, eskolaz kanpoko aisialdirako jardura egokiak, ...

Udalekuei dagokienez, pandemiaren ondorioz, Udalekuen ohiko proposamena ez zen bideragarria izan. Hala ere, Lauaxeta Ikastolak, Educaliarekin lankidetzan, Udalekuen proposamen alternatibo bat bideratu zuen Lauaxetaren instalazioetan bertan. Ekainetik uztailera bitartean izan zen, ikasleak oporretan zeuden aldirako, baina haien gurasoek lanari ekin behar zioten tarte eta egoera horri erantzun nahiean. Horrela, kontziliazioan laguntzea zen helburuetariko bat, eta Lauaxeta Ikastolako ikasleei eta familiei kalitatezko eta segurtasunezko denbora libreko eskaintza bat ematea, itxialdiaren ondoren harreman soziala berreskuratuz aldi berean.

53
erakundetan
praktikak

117
ikasle
enpresetan
praktikak
garatzen

10
kanpo
erakunderen
ekintzailatza
hitzaldi



Kirola Lauaxeta Ikastolan

Bere praktikaren onura fisiko eta mentalaz haratago, Lauaxeta Ikastolan jarduera fisikopa ikaslearen garapen pertsonalerako ere baliabidetzat hartzen dugu. Planteamendu horrek berarekin dakar, kirola balio batzuei lotuta egotea (taldea, errespetua, bizikidetzatza, bizikidetzatza). Lauaxetaren kirol ekintzetan, filosofia hori gailentzen, bai eskola-saioetan, bai eskolaz kanpoko kirolean.

Testuinguru horretan, 2019-2020 ikasturtean, honako esperientzia hauek aipa ditzakegu:



Entrenatzaileak, monitoreak eta sorosleak:

Hala nahi duten Batxilergoko 2. mailako ikasleak ikastolan presta daitezke eta aisialdiko entrenatzaile, sorosle edo monitore izateko titulazioak lor ditzakete. Horrek, horietan zenbait balio sustatzeaz gain, etorkizunerako berariazko prestakuntza profesionala ematen die.



Zirkora goaz!

Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleak zirkura joan ziren, baina ikastolatik mugitu beharrik gabe. Ikastolan bertan izan zen eta ikuskizuna Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleen esku egon zen. Esperientzia polita batzuentzat eta besteentzat.



Txapelduna oztopo-jauzian:

Arantza Berasategi txapeldun izan zen Valentziako CES Autum tour jauziko nazioarteko lehiaketan, Europa, Australia eta Amerikako kirolariek lehiatuz.

Familia eta ikastola: elkarlanean

Gure ikasleak pertsona, ikastola eta familia gisa garatzeko bidean, indarrak norabide berean batuko dituen taldea izan behar dugu. Taldearen ideia hori are gehiago indartu da 2019-2020 ikasturtearen zati batean bizi izan dugun pandemia eta konfinamendu egoeran, eta hemendik familiek egindako ahalegina eskertu eta aintzatetsi nahi dugu.



Familia mendi irteerak:

Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikasleei eta familiei zuzendutako ekimen hau familia topagunea ere badugu.



Urriko azoka:

Eskolako baratzearen inguruan egindako azoka, familia batzuekin elkartzeko momentua ere izan zen.




Ekintza osagarrien agenda:

Bertan proposatutako jarduerak, ikastola-familia talde lanaren beste adibide bat dira.




Zuhaitz eguna 2.0:

Aurten distantzian ospatu zen, konfinamendu betean, baina elkarren ondoan sentituz.




Fair Saturday:

Ekimen kultural solidario hau familiek elkartzeko beste hitzordu garrantzitsu bat da.




Gabon Kantak:

Urtero bezala, Gabonetako soinuek familiek elkartzerat animatzen gaituzte.



Distantzian elkartuta:

Konfinamenduan zehar egindako bideo-deialdiei esker, elkarrekin sentitu ginen.



First Lego League:


Robotika, talde-lana, komunikazioa eta familiek beste topagune bat.




Hezkuntza eta guraso eskola

Lauaxeta Ikastolan beti azpimarratzen dugu **beharrezkoa dela irakasleen (ikastola), ikasleen eta familien arteko lankidetzak, eta benetako talde-lanean jardutea.**

Hitzaldien gaiak, funtsean, gure esperientziatik ikasturte/adin bakoitzean landu beharreko lehentasunezko gaiak kontuan hartuta aukeratzen dira, beti ere familiek erakutsitako interesa eta kezak kontuan hartuta. Gai horiek eta beste batzuk berdin lantzen dira ikasleekin, tutoretzen bidez eta haiei zuzendutako hitzaldien bidez. Azpimarratzekoa da, zentzu horretan, Lauaxeta Ikastolako Expertia programa. Hala, ikasturte honetan, besteak beste, honako hauek egin dira:




“Substantzien eta beste batzuen kontsumoaren mendeotasuna: caannabisa, jokoak eta apustuak”:
DBHko 3. eta 4. mailako ikasleen familiei zuzendutako hitzaldia Sasoiares eskutik.




Online baina seguru:
Sekuritzek LH 4. eta 5. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako familiei emandako hitzaldia.
Online erako jokoak, cyberbullinga eta familiek gai honetan duten rola inguruan hausnartuz.



Frustrazioa vs gehiegizko babesa:
Haur Hezkuntzako familiei zuzendutako hitzaldia, Albor-Coshen eskutik.




Kivari buruzko hitzaldiak:
LHko familiei emandako Kivari buruzko hitzaldiak, familien parte hartzea funtsezkoa da eta programa honetan.



Hezkuntza emozionalari buruzko hitzaldia:
Lehen Hezkuntzako 2. mailako familiei zuzendua, Coach & Playren eskutik.



IPad-aren erabilerari buruzko hitzaldiak eta prestakuntza-saioak:
Lehen eta Bigarren Hezkuntzako familiei, iPad 1x1 proiektuaren esparruan zuzenduak.



Kudeaketa emozionala:
Haur eta Lehen Hezkuntzako familiei zuzenduta, Albor-Cosh taldearekin lankidetzan.




Eskola-orientazioari eta orientazio profesionalari buruzko hitzaldiak, DBHko 4. mailako eta Batxilergoko familientzat, ADEYPen eskutik.

Baloreak, elkarbizitza eta ikasketa zerbitzua

Pertsonak izaki sozialak gara, eta gure garapen pertsonalak gure dimentsio sozialari ere arreta eskaintzea eskatzen du. Era berean, garrantzitsua da ikaslea, bere jarrerarekin eta ekintzekin, parte den gizartea hobetzen lagun dezakeela konturatzea.

Ikaskuntza-zerbitzua ikaskuntza eta komunitatearentzako zerbitzua uztartzen dituen hezkuntza-proposamena da. Horren bidez, ikaslearen ikaskuntza egoera errealan bilatzen dugu, bai eta ikaslearen gizartearen hobekuntza ere, ikaslearen beraren emaitza eta jarrera gisa.


Egunerokotasunean eta, bereziki, tutoretza-jardueretan eta ikastolak erakunde gisa garatzen dituen-jardueretan garatutako ekintzetaz harago, honako hauek nabarmendu behar dira:




EITB Maratoia:
EITB kantolatutako haurren minbiziaren aurkako maratoi solidarioan parte hartu genuen, hainbat hezkuntza-etapa ezberdinetako ikasleekin egindako bideoekin.



Fair Saturday:
Lauaxeta Ikastola urtero, azaroko azken larunbatean, Black Friday egunaren ondorengo egunean, egiten den kultur mugimendu global honetan inplikatu zen, kulturaren eta artearen bidez mundua aldatzeko asmoz.



Berdintasuna:
E m a k u m e a r e n nazioarteko egunaren barruan, jarduera ugari egin ziren Lauaxeta ikastolan. Horien artean, Haur Hezkuntzako ikasle batzuei egoera bat planteatu genien, eta ikasleek oso argi zituzten gauzak.



World Peace Game:
Lauaxetan ere garatu den AEBko ekimena da. Rol-joko honen helburua honako balio hauek lantzea da: lankidetzak, elkartasuna, sormena, talde-lana, entzuten jakitea, arazoak konpontzen jakitea, etab.

Bideoa ikusteko:
<https://cutt.ly/ugcjGda>



Bideoa ikusteko:
<https://cutt.ly/agcQSN>



Bideoa ikusteko:
<https://cutt.ly/Kgcj4xG>



Bideoa ikusteko:
<https://bit.ly/2NHbdpm>



Atal honetan, ezin dugu boluntariora-programa aipatu gabe utzi: hala aukeratzen duten batxilergoko ikasleek (gaur egun 100 baino gehiago) boluntariora-jardueretan parte hartzeko aukera dute, ikastolatik koordinatutako gizarte eta hezkuntza lanetan eta abarretan lagunduz.

Era berean, nabarmendu behar dira bizikidetzak errazteko, gatazkak konpontzeko eta balio jakin batzuk sustatzeko gelan garatzen diren jarduerak eta dinamikak.

Aipatzekoa da, halaber, ikasle erreferenteek bizikidetzaren arloan Lauaxeta Ikastolan egiten duten lana. DBHko lehen zikloan Bizikidetzarako Batzordea dugu, 5 ikasle osatua, eta ikasgelako ikasle guztiek txandaka osotzen dute. DBHko bigarren zikloan, ikasle erreferenteen figura dugu, eta Batxilergoan, G7 taldea dago. Figura horiek guztiek paper aktiboa dute eskolako bizikidetzaren inguruan.

Lauaxeta Ikastola, KiVa eskola

Lauaxeta Ikastola, duela hiru ikasturtetik hona, KiVa eskola bat da. KiVa programa Finlandiako eredu bat da, Turkuko Unibertsitateak garatua eskola-jazarpena murrizteko, arazo horren aurka eta eskoletan ongizatea areagotzeko orduan eraginkorra dela erakutsi baitu. Esperientzia dela eta, joan den ikasturtean programa DBHra ere zabaltzea erabaki zen. Horrela, ikasturtez ikasturte, eskola-jazarpenaren aurkako programa horren ezarpena ikastola osora hedatuko da; izan ere, goi-mailako ikasturteetan, edozein jazarpen-motaren aurrean jarduteko protokoloa badago ere, ez dago ezarrita KiVa programa.

KiVako ikasgaietan, ikasleek jazarpenari aurre egiteko metodoak ikasten dituzte. Ikasgaiek jazarpenari buruzko eztabaidak, talde-lana, film laburrak eta egoeren antzezpena barne hartzen dituzte. Bere edukia gai orokorretan oinarritzen da, giza harremanetan errespetuak duen garrantzitik eskolako jazarpenaren mekanismo eta ondorioetaraino. Talde batek jazarpena mantendu edo amaitzeko orduan izan dezakeen rolean zentratzen dira ikasgai asko; ikasleek jazarpenari aurre egiteko hainbat moduren inguruan hausnartzen dute, eta praktikan jartzen dituzte. Irakaspenak KiVa jazarpenaren aurkako ordenagailu jokoarekin osatuta daude.

Ikastolako hainbat profesionalak daramatzaten KiVa posterrek eta txalekoek ikusgarritasuna ematen diote programari eta horrek Lauaxetako eguneroko bizitzan duen garrantziari.

Lauaxetak, gainera, KiVako talde espezifiko bat du, lau kidez osatua, irakasleen, zuzendaritzaren eta orientazioaren artean, eta tutorearekin batera, eskola-jazarpeneko kasuak geldiarazteaz arduratze dena. Ikastolako langileak ere KiVa programa inplementatzeko trebatu dituzte eta egon daitezkeen kasuak ebazteko.

Programaren barruan, nabarmentzekoa da jazarle ez diren baina eskola-jazarpena desagerrarazteko funtsezko zeregina duten ikasleekin egiten den prebentzio-lana eta lan aktiboa.

Joan den ikasturtean, halaber, familientzako informazio-saioak egin ziren, eta nabarmentzekoa da familien asietentzia eta konpromisoa saio hauetan.

KiVa programaren
inguruko informazioa:
www.kivaprogram.net/basque



Familiei egindako
aurkezpena:
goo.gl/Nci6Fp



Gure blogean KiVaren inguruan
argitaratutakora sarbidea:
goo.gl/cDkta7



Expertia: agente sozialak ikasgeletan

Lauaxeta Ikastolan ikasturte osoan garatzen den Expertia Programaren baitan, hainbat dira ikasgeletara hurbiltzen diren gizarte eragileak, ikasleekin euren ezagutzak eta esperientzia partekatzeke. Asko dira jorratzen diren gaiak; guztietan, komunean, kanpoko gizarte eragile bat, Lauaxeta Ikastolako ikasleekin bere esperientzia partekatuz. Lehen eskuko ikaskuntza. Horrela, memoria honen aurreko orrietan, besteak beste 2019-2020 ikasturtean, Enpresa eta Orientazio Profesionaleko programaren esparruan ikasleek jasotako hitzaldi guztietatik harago, honako hitzaldi hauek garatu dituzte:



Gizarte inklusiboago baten alde:

Gizarte inklusiboa gizarte bidezkoagoa da, pertsona desberdinei egokitzen baitzaie eta haien premiei aurrea hartzen baitio. Horretan dihardu Bizitegi eta Gorabidek, eta, haiei esker, Lauaxetako ikasleak beren bizitza-esperientziekin aberasten dira.

Orientazio akademikoa eta profesionala:

Ikasleek, ADEYPekin batera, etorkizun akademiko eta profesionalari buruz hausnartuzuten, etorkizun horri buruzko erabakiak hartzeko orduan laguntza eskaintzeko asmoz.

Bidaideak BSRi esker ikasitakoak:

Bizitzak oztopoak jartzen dizkigu, baina mugak norberak jartzen ditu. Bidaideak Bilbao BSR taldea Lauaxetara etorri zen eta hauxe izan zen ikaskizun garrantzitsuenetariko bat.

Substantzien ganako mendekotasuna:

Hitzaldi eta hausnarketa interesgarriak egin zituzten ikasleek, Sasoia erakundearen eskutik, osasunerako hezkuntzari eta drogamendekotasunen prebentzioaren inguruan.

Atal honetan aipatzekoak dira, halaber, Coach & Playrekin kudeaketa emozionalari buruzko prestakuntza, Gerta dakizuen hitzaldia, gazteenak errepideko arriskuen inguruan kontzientziatzeko helburuz eginikoa, Kontsumobiderekin edo AECCrekin egindako hausnarketak, edo Mondragoi Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak emandako saioak. Erakunde askok beren esperientzia eta ideiak partekatzen dituzte, eta gure ikasleak aberasten dituzte. Beste batzuen artean, batzuk aipatu ditugu.



Nazioarteko Batxilergo Duala, Lauaxeta Ikastolan

DBHko 2., 3. eta 4. mailetako eta Batxilergoko 1. mailako hainbat ikaslek, Nazioarteko Batxilergo duala egin zuten Lauaxeta Ikastolan, 2018-2019 ikasturtean.

Aipatzekoa da, gainera, horietatik 14k ohorezko diploma lortu dutela, egindako lanaren aitortpen gisa. Zorionik beroenak Xabier Ayerra, Uxue Biritxinaga, Libe Garate, Maialen Vegas, June Uranaga, Miren Mondragon, Pau Egea, Uxue Abad, Naroa Amezua, Aroa Fernandez, Maren Jimenez, Cristine Ruigomez, Unai Etxebarria eta Noa Martinez!


Batxilergoko Diploma dual hori Academica Corporationek sortu eta garatutakoa da, eta, horren ondorioz, ikasleek bi titulazio lortzen dituzte aldi berean: ikaslearen jatorrizko herrialdeko batxilergoko titulazioa (aurrez aurre) eta AEBetako batxilergoko titulazioa edo High School Diploma (ingurune digital batean).

Hiru helburu lortu nahi dira nagusiki:

- **Hizkuntza murgiltzea:** irakasgai guztiak eta irakasleekiko harremanak ingelesez ezartzen dira lehen unetik, eta horrek maila elebidun aurreratua eskuratzea dakar.
- **Murgiltze teknologikoa:** ikaskuntza digitaleko teknologia aurreratuenak erabiltzen jakitea.
- **Murgiltze pertsonala:** ikasleak lanean erantzukizuna eta heldutasuna lortzen du, autonomia maila handiarekin, denboraren kudeaketaren ikaskuntzarekin, egokitze gaitasunarekin eta ingurune desberdin eta multikulturaletan lan egiteko malgutasunarekin.

14

ohorezko diploma,
egindako lan onaren
erakusgarri




Informazio gehiago
www.academica.school/



Lauaxeta European Business Batxilergo Diploma

Lauaxeta Ikastolaren LEBBD programari esker, parte-hartzaileek lan merkatuan eskatzen diran enpresa eta hizkuntza arloko gaitasun nagusienak garatzen eta egiaztatzen dituzte. Diploma honek alderdi hauek ditu:

- **Ikaskuntza-esperientziak eta edukiak:** modalitate hau garatzen duten ikasleek askotariko ikaskuntza-esperientziak dituzte, guztiak, European Business Batxilergoko Diplomak egiaztatuta.
- **Gaitasunak:** programa honen bidez, parte-hartzaileek hainbat gaitasun interesgarri garatzen dituzte beren lan-etorkizunerako: lidergoa, arazoak konpontzea, talde-lana, enpresa-esparrua ezagutzea, nazioartekotasuna, Europako ezagutza, hizkuntzak ...
- **Metodologia aktiboak:** aipatutako gaitasunak garatzeko, metodologia aktiboak erabiltzen dira, hala nola simulazioak, proiektuak, arazoak konpontzeko lanak, enpresetako praktikak ...



Informazio gehiago:
www.lebbd.eu/



Bestelako ikasketa ekintza batzuk

2019-2020 ikasturteko ospakizun eta ekitaldi bereziei dagokienez, honako hauek azpimarra ditzakegu:



Inauteriak Txitxiburduntzi Euskara eguna Zuhaitz eguna



Bisitak eta irteerak Santa Ageda Gabonak Gabon kantak



Gure ikasle ohiak

2019-2020 ikasturteko memoria egitean, ezin ditugu aipatu gabe utzi aurten promozionatu diren eta Lauaxeta Ikastolatik haratago beste ibilbide bat hasten duten ikasle guztiak.

Atal honetan, nabarmentzekoa da gure ikasleetatik 33k bikaintasuna aintzatetsi zutela. Hau da, gure 33 ikaslek batz besteko bikaina lortu zuten Batxilergoko 1. eta 2. mailen artean: Katalin Ortuzar Legina, Iraide Ugalde Peña, Iñigo Salvador Eguiluz, Nagore Aurrekoetxea Intxausti, Aitor Mazariegos Trillo, Jon Etchebarria Zarandona, Nerea Sainz de Baranda Saez de la Fuente, Itxasne Berasategui Garro, Nora González Echeverria, Elaia Martínez Oleaga, Unai Marín Etchebarria, María Caballero López, Izaro Etchebarria Herrera, Antton Armando Gorroño Marsal, Asier García Castro, Anartz Langara Castillo, Irati Navarro Mendieta, Maialen Vellisca Rojas, Irati Martín Zurrón, Leire Barrenechea López, Elaia Artabe González, Nahia Osuna Echevarría, Gorka Sánchez Doistua, Kattalin Atutxa Astigarraga, Mikel Cimadevilla Cuesta, Julene López Berzosa, Ane Urzelai López de Lacalla, Laura Bardallo Díaz, Olaia Yaniz de la Iglesia, Xabier Zarate Jimeno, Esmeralda Ayala González, Unai Zarraga Gorrotxategi eta Ainhoa Bernabé Pérez. Zorionak!

Zoritxarrez, pandemiak Agur Jaia atzeratzea eragin du, beraz, hitzordu bat dugu egiteke zuekin guztiekin!

33
agiri,
bikaintasunaren
adierazgarri



Ikasleek jasotako sari eta aintzatespenak



Open Science:

Ohorezko aipamena lortu zuen Ander Calvo, Jon Lorenzo, Ekaitz Roman eta Aimar Pagonabarragaren lanak eta lehen saria Arantza Berasategui eta Olatz Fernandezek lortu.



Ciencia Show:

Asier Albizua finalaurrekoaren irabazleak eta Jokin Mena Lauaxeta Ikastolako ikasleak Estatuko finalean parte hartu zuten.



Exporecerca:

Elene Cascan, Maria Zarrabeitia, Leire Gallego, Ane Ruiz eta Irene Gallego saritu zituzte zientzia azoka honetan.



Arrazakeriaren aurkako ipuinak:

sarituak izan ziren Mikel Maguregi Atutxa, Kattalin Zuazo, June Ormazabal, Aiala Bilbao Olabarri eta aipamen bereziak jaso zituzten Jon Vegas Zugazagak eta Izaro Pagalday Aburto.



Urruzunotarrak:

Hezkuntza Sailak Urruzunotarrak literatur lehiaketaren irabazleak jaso zituen. Horien artean, June Silva eta Irune Huerta. Zorionak!



Industria eguna:

Alex Arroyo, Oier Gallastegi, Ekaitz Dominguez, Mikelats Pascal eta Borja Caballero saritu zituzten.



Filosofoen lehiaketa:

Markel Gil, Iria Azkueta, Eider Aburto eta Ane Bilbao saritu zituzten galdera filosofiko sortzaileenak egiteagatik.




Batxilergo dualeko ohorezko diploma:

Xabier Ayerra, Uxue Biritxinaga, Libe Garate, Maialen Vegas, June Uranaga, Miren Mondragon, Pau Egea, Uxue Abad, Naroa Amezcua, Aroa Fernandez, Maren Jimenez, Cristine Ruigomez, Unai Etxebarria eta Noa Martinez.



Premio Hebocon:

Jule Infantek Maker Faireren Hebocon saria irabazi zuen bere robotarekin, Bilbao Maker Faire esperientzian.



Oztopo-jauzian txapeldun:

Arantza Berasategi txapeldun izan zen Valentziako CES Autumn tour jauziko nazioarteko lehiaketan, Europa, Australia eta Amerikako kirolariekin lehiatu ondoren.



Batxilergoko bikaintasunari diploma:

Katalin Ortuzar Legina, Iraide Ugalde Peña, Iñigo Salvador Eguiluz, Nagore Aurrekoetxea Intxausti, Aitor Mazariegos Trillo, Jon Etxebarria Zarandona, Nerea Sainz de Baranda Saez de la Fuente, Itxasne Berasategui Garro, Nora González Echeverria, Elaia Martínez Oleaga, Unai Marín Etxebarria, María Caballero López, Izaro Etxebarria Herrera, Antton Armando Gorroño Marsal, Asier García Castro, Anartz Langara Castillo, Irati Navarro Mendieta, Maialen Vellisca Rojas, Irati Martín Zurrón, Leire Barrenechea López, Elaia Artabe González, Nahia Osuna Echevarría, Gorka Sánchez Doistua, Kattalin Atutxa Astigarraga, Mikel Cimadevilla Cuesta, Julene López Berzosa, Ane Urzelai López de Lacalla, Laura Bardallo Díaz, Olaia Yaniz de la Iglesia, Xabier Zarate Jimeno, Esmeralda Ayala González, Unai Zarraga Gorrotxategi eta Ainhoa Bernabé Pérez. Zorionak!

KUDEAKETA DATUAK

03

03 KUDEAKETA DATUAK


Autoformazioa eta I+G

Etengabeko hobekuntza funtzeskoa da gure lanean, eta, horregatik, irakasle guztiak Ikasketa Komunitate bateko kide dira. Komunitate horretan, ikasgelan txertatu beharreko metodologia berriak ikertu, diseinatu eta aplikatzen dira. Komunitate horiek denboran aldakorrek diren gai jakin batzuetan lan egiten dute; izan ere, horiei buruz ikertzen den heinean eta ikasgelan integratzen diren heinean, Ikaskuntza-komunitateek landu beharreko gai berriak identifikatzen dira.


UDIN- Disziplina anitzeko Unitateak	Gaurkotasuna duen gai baten inguruan, ikasleek gauzatzen dituzten proiektu multidiziplinarrak, ikasgai ezberdinetan ikasitakoa aplikatuz.
ABP- Arazoetan Oinarritutako Ikasketa	Ikasleari plantetautako egoera edo arazoak, arazoen ebazpenerako faseak eta teknikak erabiliz, irtenbidea proposatu dezaten.
LKT- Ikasketa Kooperatiboa	Ikasleen arteko kooperazioa oinarri dela lortutako ikasketa, materia bakoitzeko edukien ikasketaz gain, talde-lanaren gaitasuna garatzeko baliagarri dena.
MKT- Ebaluazioa, rubrikak eta feedbacka	Ebaluazioa eta etengabeko feedbacka, ikasketa autonomoaren iturri bezala.
English Team	Ingelesaren irakaskuntzarako estrategia eta metodologia berrien hobekuntza eta garapena.
Elkarbizitza	Norbere garapenerako, elkarbizitza eta inguruneke eremuen kudeaketa egokiaren garrantzia.
Science	Lehen Hezkuntzan, Natur Zientzietako eduki batzuk ingelesez gauzatzea, hizkuntza honetako erabilera gaitasuna bultzatzeko asmoz.
Psikomotrizitatea	4 urteko mailan psikomotrizitate saioen adaptazioa, ikasketa esanguratsua bultzatzeko asmoz.
Think S(h)are	Zeharkako eta diziplinazko gaitasunen garapen esplizitua bilatzen duen eredu pedagogikoa, estrategia metodologiko aktiboen, teknika didaktiko aurreratuena eta curriculum-programa aberastuen bidez. Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzara arte inplementatzen da
iPad projects	iPadaren erabilera hedatzea, eduki kurrikularren garapena bilatzeko baliabide bezela.
Scratch	Ikaslearengan sormena, talde-lana eta arrazonomendua bultzatzeko asmoz garatzen den programazio lengoia.
IKT- Teknologia barriak	Diziplina anitzeko taldea (irakasleak, informatikoak, komunikazioa, administrazioa, eta abar), ikastolan teknologia barrien txertaketarik egokiena zehaztu eta koordinatzen duea.
Portafolioa eta hausnarketa bidezko ikasketa	Ikasketa sakon eta kontzienteagoa, eta beraz, kalitatezkoagoa bideratzen duten prozedurak.

Emaitzak

Azken urteetan, gero eta matrikulazio handiagoa eskatzen da, batez ere Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko etapetan. Maila horretan, ikasturte bakoitzeko hiru talde izatetik lau izatera igaro gara, eta 12 eta 18 urte bitarteko adin kritikoetan (DBH eta Batxilergoa) mailaz igotzeko emaitzek agerian uzten dute hezkuntza-lan ona eta familien, irakasleen eta ikasleen arteko lankidetzaz.



Matrikulazioaren eboluzioa Lauaxeta Ikastolan



% Promozioak DBH eta Batxilergoan, ikasgai danak gairidituta izanda

Garapen Iraunkorrerako Helburuekaz bat

Euskal Herriko UNESCO Sarea (EHUS), UNESCOren erlazionatutako 19 erakunde publiko eta pribatuz osatutako sarea da. Beraien ekintzak eta programak UNESCOren bost eremuetan kokatzen dira: hezkuntza, natur eta giza zientziak, kultura eta informazio eta komunikazioa, 2030 agendagaz eta Garapenerako Helburuekaz konpromisoa agertuz.

Lauaxeta Ikastola UNESCO Sarearen kide da eta zentzu honetan; bere ekimenak Garapen Iraunkorrerako Helburuekaz bat datoz:



Helburuak ondokoak dira:

1. Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.
2. Gosea amaitzea, elikagai-segurtasun eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.
3. Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.
4. Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.
5. Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.
6. Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.
7. Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.
8. Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.
9. Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.
10. Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea.
11. Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.
12. Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.
13. Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko (Aintzat hartuta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena klima aldatetari mundu mailan erantzuteko Gobernuen arteko eta nazioarteko foroa nagusia dela).
14. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarriean erabiltzea garapen jasangarriari begira.
15. Lehorreko bizitza babestea, lehengoratztea eta modu jasangarriean erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarriean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.
16. Garapen jasangarriko gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.
17. Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarriko Munduko Ituna biziberritzea.

Ondoko taulak, Lauaxetan garatutako hezkuntza edota kudeaketa ekintzen eta Garapen Iraunkorrerako helburuen arteko lotura erakusten dau. Adibide bezala, ekintza batzuk aipatzen dira:

13 ekintza Bolondresa, arropa bilketa solidarioa, janari bilketa, liburue eta jostailu azoka	8 ekintza Eskola ortua, Funghi Thinking, Bertoko Plana, janari bilketa solidarioa	12 ekintza Eskola ortua, Funghi Thinking, Bertoko Plana, janari bilketa solidarioa, yoga	15 ekintza Kultur aniztasunaren UDINa, Ekintzailtza, Enpresa programa, bolondresa	14 ekintza Inspira programa	2 ekintza
11 ekintza Smart Cities, Ekintzaileza, Erosketa berdea, birziklapena	9 ekintza Ekintzailtza, Enpresa programa, kultur aniztasuna, Erosketa berdea	12 ekintza Smart Cities, obrak, Ekintzailtza	7 ekintza Unesmun World Peace Game	9 ekintza Smart Cities World Peace Game	11 ekintza Eskola ortua, Funghi Thinking, Bertoko Plana, janari bilketa solidarioa
15 ekintza Smart Cities, Unesmun, Euskal Herria tropikala?	4 ekintza	6 ekintza Eskola ortua, Smart Cities, Erosketa berdea, zaindu dezagun planeta	5 ekintza Unesmun, kultur aniztasuna, Fair Saturday	3 ekintza Unesmun World Peace Game	+150 ekintza, lan lerro eta ekimen

Atal honetan, aipatzekoa da Lauaxetako Euskaliteko Kudeaketa Aurreratuko praktiken jardunaldian parte hartu genuela, Garapen Jasangarriko Helburuak kudeaketan integratzeari buruz dugun esperientzia azalduz, bai eta Bilaka dokumentalean ere. Dokumentalak eredu pedagogikoak eta hezkuntza-proiektu berritzaileak dituzten 11 ikastetxeren esperientzia jasotzen du, GIHak beren hezkuntza eta kudeaketa ereduan txertatu dituzten erakundeak hain zuzen. UNESCO Etxeak eginikoa da dokumentala, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin.

Bideoa ikusteko
<https://cutt.ly/1gvZf5a>



EFQM Kudeaketa Eredua

Lauaxeta Ikastolak kudeaketa aurreratuarekiko duen konpromisoa argia da, kalitatezko hezkuntza batek, kalitatezko antolakuntza kudeaketa eskatzen baitu. Ibilbide zabala daramagu kalitatearen kudeaketan EFQM ereduari hasi ginenetik, eta zilarrezko Q-a lortu genuen 2001ean, eta urrezko Q-a 2003an.

Aldi berean, Lauaxeta Ikastola 500 Klubeko kide da, EFQM ereduari 500 puntu baino gehiago lortzen dituzten beste erakunde batzuekin batera.

Illo beretik:

- Lauaxeta Ikastolak modu proaktiboan parte hartzen jarraitzen du Euskalitek Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren inguruan antolatutako hausnarketetan.
- Lauaxeta Ikastolako zuzendariak beste erakunde batzuetako kalitate-ebaluatzaile gisa parte hartzen dute.
- Etengabe parte hartzen dugu kalitateari buruzko prestakuntza-ekintzetan.

Ikasturte honetan, topagune askotan izan gara: Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astea, berrikuntzari buruzko jardunaldiak, etab.

Ikastolako jantoki zerbitzua

Elikadura gure seme-alabak hezi behar ditugun beste esparru bat da. Hala ere, kontuan hartuta ikastolan egunero egiten duten janaria guztizko eguneko janariaren% 25-30 dela, funtsezkoa da, beste behin ere, familietatik indarrak batzea eta elkarrekin lan egitea elikadura-ohitura onak har ditzaten.

Illo horretan, 2016-2017 ikasturtean ezarritako Bertoko Planaren esparruan, Lauaxetak tokiko produktuen eta eskuz ekoiztutako produktuen portzentaje handiagoa pixkanaka txertatzeko konpromisoari eusten dio.

Aurrekoaz gain, aipatu behar da **1.500 pertsonak baino gehiagok jaten dutela egunero ikastolan, eta horrek testuinguru eta konplexutasun bat sortzen du**, esparru horretan egiten den lan guztia interpretatzeko. Horien artean, egunero 60 menu berezi egiten dira, alergia edo intolerantzia espezifikoak erantzuna emanez (glutenik gabeko dietak, laktosarik gabekoak, etab.).

GASCAk eskola-jantokietako janariaren menuak diseinatzeko, Eusko Jaurlaritzak eta NAOS estrategian agertzen direnak ezarritako kontsumo-jarraibideen arabera, elikadura egokia eta, ondorioz, eskola-adinean osasun ona ziurtatzeko. Alde horretatik, menuan proposatutako afarien plangintza, nutrizio-balioen arabera diseinatzen da, egun osoan zehar makro zein mikronutrienteen ekarpen egokia lortu dezaten.

Illo horretan aurrera egin dugu, halaber, 2019-2020 ikasturteari dagokionez:



Bertoko Plana:

2016-2017 ikasturtean ezarritako jantokiaren inguruko Bertoko Planaren ildotik, ikastolako sukaldean prestatutako janariaren hornitzaileen % 99 tokikoak direla baieztatu dezakegu. Bertan, gero eta tokiko produktu eta artisau-produktu gehiago sartzeko jarraipena egiten da eta konpromisoa hartzen da.



Hamaiketako osasuntsua:

Aurreko ikasturtean hobekuntzak egin ziren txikien hamaiketakoari dagokionez. HHko bi urtetik LHko 2. mailara bitarteko ikasleek sasoiko fruta dute eskura astean lau egunetan, eta glutenik gabeko galleta bat baino ez zaie eskaintzen astean behin. Illo beretik, beste adin batzuetako haurren guraso guztiak animatzen ditugu hamaiketako ekartzeak, ahalik eta osasungarriena izan dadin.




Postrearen garrantzia:

Postrea aukeratzeak eragin zuzena du janariaren orekan. Lauaxetako frutaren kontsumoari ematen zaio lehentasuna: lehen, astean 3 aldiz hartzen zaio, eta, joan den ikasturtean, astean 4 egunetan. Postrea fruta ez den egunerako ere, hobekuntzak egiten ahalegintzen gara. Horren adibide dira Errotik jogurt naturala, edo ikastolako sukaldean egindako natillak eta arrozak.

Atal honetan, gainera, aipatu behar da **eskolako baratzean bildutakoaren zati bat ikasleek eurek eramaten dutela ikastolako sukaldera**. Horrela, eskolako baratzearen zikloa ixten da eta elikadura osasungarriaren eta km0en garrantzia azpimarratzen da.

Garrantzitsua iruditzen zaigu gainera, familiei gai honen honen berri unean-unean ematea, eta horregatik, gure blogean badugu atal espezifiko bat, non jantokiari eta ikastolako Bertoko Planari buruzko informazio guztia jasotzen den.

Bertoko planaren inguruan blogeko edukiak ikusteko:
<http://www.lauaxeta.eus/es/bertoko-lauaxeta>



Natura eta espazio neuro-hezitzaileak

Espazioaren eta haren diseinuaren bidez, gure zereginetan eta ikaskuntzan eragin positiboa duten emozioak bultzatzeko; izan ere, zentzuak esaten digunaz harago, hainbat ikerketek babesten dute espazioek gure lan egiteko eta ikasteko moduan duten eragina.

Aurrekoaz haratago, ikasteak, edozein lekutan izan dezake lekua. Edozein esperientzia, une eta leku izan daiteke ikasteko iturri, ikasgelan izan edo ez, ikastolan izan edo ez. Horrela, ikaskuntza formala eta informala bereizten dugu, eta ildo horretatik doaz Lauaxeta Ikastolan joan den ikasturtean egindako obrak, ikasteko espazio berriak sortuz eta irabaziz, ikasgelako hormetatik harago, espazioak egungo hezkuntzaren beharretara egokituz eta, edonola ere, mota horretako planteamendu guztiek dakartzaten dimentsioak eta inbertsioak ere kontuan hartuz.

Hainbat ikerketak, gainera, adierazten dute mugimenduak, argi naturalarekiko esposizioak eta naturarekiko zuzeneko kontaktuak eragin positiboa dutela ikaskuntzan.

Heike Freire nazioarteko prestatzaile, aholkulari eta hizlariak hainbat ikerketa garatu ditu, eta esperientzia handia pilatu du horren inguruan. “Educación en verde” eta “Estate quieto y atiende” liburuen egilea da, eta mugimenduaren, naturarekiko harremanaren, barruko eta kanpoko ikaskuntzaren eta abarren arteko harremanaz hitz egiten digu.

Lauaxetan, ditugun instalazioen eta berdeguneen aukerak eta zabaltasuna aprobetxatuz, naturarekin kontaktuan dagoen ikaskuntza baten aldeko apustua egiten dugu, Laia (eskola-baratzea) bezalako proiektuen bidez, ikasgelaz haraindiko ikaskuntza-espazioak berreskuratuz eta sortuz, edo, besterik gabe, eguneko lanak, eguzkiak eta naturarekiko kontaktuak ematen digun aparteko energia horrekin burutuz.



Erakunde aintzatespenak

Aurrekoaz gain, gure lanaren emaitzatzat har ditzakegu honako hauek ere:



Gizarte-eraldaketan erreferente:
G a r a p e n e r a k o Euskal Agentziaren programaren barnean aintzatespen hau jaso genuen.


El Mundoren “ikastetxe onenen rankinga:
16. urtez jarraian, Lauaxeta ikastetxe onenen artean hautatua izan zan.
<http://www.elmundo.es/mejores-colegios.html>

Berrikuntza:
Aukeratutak izan ginan hezkuntza berrikuntzari adituz.
<https://cutt.ly/zgmAEzw>

Segureskola zigilua:
Kalitatezko hezkuntza digitala emateagatik, bizikidetza, berdintasuna bultzatzeagatik.
<https://cutt.ly/TgmANMm>

Erantzunkizun soziala

Gizartearen ekarpena ere gure helburuetako bat da. Atal honetan, honako hauek garatu dira:



Arropa bilketa solidarioa:
Koopera (Caritas).

Fair Saturday 2019:
Kultura eta elkarlaguntza. Ekimen honetan parte hartu genuen.


Jostailuen azoka solidarioa:
Familien laguntzari esker, Acción contra el hambre erakundera bideratu genuen laguntza.

Osakidetzarako biserak:
Lauaxetako 3D inpresorak ere Osakidetzarako biserak egiteko martxan jarri ziran.



Hitzaldiak eta parte hartzeak

Gizarteari egiten diogun ekarpenaren esparruan, esperientziak trukatzea ere aurreikusten dugu, hala nola:




Suediako bisita:
gure hezkuntza eta kalitate sistema ezagutu nahi zuen Suediako ordezkari baten bisita izan genuen.

Kudeaketa aurreratuko praktika onak:
Euskaliten jardunaldi honetan parte hartu genuen, esperientziaren berri emanez.

Hezkuntza digitalizazioa eta berrikuntza:
MUko Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearekin lan-esperientzia partekatu genuen.

Irakaskuntza-profilari buruzko gogoetak:
hezkuntzako profesionalen prestakuntzari buruz HUHEZi-rekin hausnartu genuen.



Deustuko Unibertsitatea Lauaxetan:
Deustuko Unibertsitateko ehun ikaslek baino gehiagok bisitatu gintuzten, kirolari buruz dugun planteamendua ezagutzeko.

Eraldaketa sozialaren inguruko esperientziak:
gure esperientzia partekatu genuen tokiko eta nazioarteko 50 erakundetako lagunekin.

Hizkuntza indigenak eta GIH:
“Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtea eta Garapen Iraunkorreko Helburuak” jardunaldian izan ginen.



Erantzukizuna eta segurtasun digitala:
erantzukizunari eta segurtasun digitalari buruzko esperientzia partekatu genuen Deustuko Unibertsitatean antolatutako topaketa batean.

Sare sozialetan ditugun lagunak

Ikastetxe batek, hezkuntza, pertsonen garapena bideratu eta hauen bitartez gizartearen beraren garapena bultzatzeko bidetzat hartzen duen heinean, hezkuntza-eragileen artean eraikitzen den den hartuemonaren eta elkarriketa bere helburuen parte da baita.

Hala, kanpoko komunikazio-bide gehiago izateko eta familiei albisteak, artikulatuak eta esteka interesgarriak helarazteko, **Lauaxeta Ikastola Interneten eta sare sozialetan ere badago.**

Datu hauek gure jarraitzaileen eta bisitarien bilakaera erakusten dute, eta gure emaitzak islatzen dituzte:



Lauaxeta Ikastolako bideo eta audio batzuk

Youtubeko gure kanaletik, dokumentu honetan orain arte jasotakoak bezalako bideoak ikus daitezke, jarraian bilduko ditugunetako batzuk. Horien guztien helburua proiektu eta eduki interesgarriak hezkuntzaren ikuspegitik jakinaraztea da, eta aldian-aldian eguneratzen dira:



First Lego League:
<https://cutt.ly/vglPNB2>



Gela huts bateko mikrokontakizunak:
<https://cutt.ly/dgz6rG1>




Exporecerca:
<https://cutt.ly/FglAj5A>



Industriaren eguna:
<https://cutt.ly/xgxpTwX>



EITB Maratoia:
<https://cutt.ly/ugcjGda>



Berdintasuna- 8M:
<https://cutt.ly/Kgcj4xG>



Fair Saturday:
<https://cutt.ly/agcQSJN>




Bilaka-GIH:
<https://cutt.ly/1gvZf5a>



Lauaxeta Ikastola, sarean

Memoria honetan jasotzen diran edukietaz gain, irakurlea gure webgunea bisitatzera gonbidatzen dugu (www.lauaxeta.eus), etapa bakoitzerako hezkuntza ereduaren sakonduz:



Gainera, web orrian bertan, Lauaxetak, besteak beste, interneteko komunikazio-kanal hauek ditu:



<https://www.facebook.com/lauaxeta.ikastola>



<https://twitter.com/lauaxetaikastol>



https://www.instagram.com/lauaxeta_ikastola



<https://www.youtube.com/user/Lauaxeta01kastola>

Bestalde, Lauaxetak beste web gune batzuk ditu, proiektu espezifikoetarako buruzko informazio gehiago lortzeko:



iPad 1x1 proiektua
www.ipad-educacion.com



Lauaxeta 4.0
www.ikasmaterialak.com



LEBBD webgunea
www.lebbd.eus



Konpetentzien webgunea
www.competencias-educacion.com

Komunikabideen jarraipena



Los mejores experimentos del Open Science

https://www.laopinioncoruna.es/gran-coruna/2019/09/23/mejores-experimentos-open-science/1437507.html?utm_source=rss
La opinión de La Coruña 2019-09-23

Escuela innovadora: Lauaxeta Ikastola

<https://innovacioneducativa603421787.wordpress.com/2019/10/08/escuela-innovadora/>
Innovación educativa, 2019-10-08

El robot de la alumna de Lauaxeta Jule Infante es premiado en un prestigioso festival internacional

<http://www.durangon.com/el-robot-de-la-alumna-de-lauaxeta-jule-infante-es-premiado-en-un-prestigioso-festival-internacional/>
Durangon, 2019-11-09

Lauaxeta ikastolak 'Lau Teilatu' abestiaren bertsioa helarazi digu

<https://www.eitb.eus/eu/eitb-taldea/eitb-maratoia/zure-bertsiorik-onena/bideoak/osoak/6828583/bideoa-lauaxeta-ikastolak-lau-teilatu-abestiaren-bertsioa-helarazi-digu/?fbclid=IwAR1zp113xkvS6SN-838fsJOS1sQtQuZ0-0a026cLD2S0sjudbtIsMj7P8Lo>
Eitb, 2019-11-19

Premio a la Integración de Objetivos de Desarrollo Sostenible

<https://m.europapress.es/epsocial/responsables/noticia-centro-somorrosto-parques-tecnologicos-euskadi-premio-integracion-objetivos-desarrollo-sostenible-20200306164651.html>
EuropaPress, 2020-03-06

"Coles" de Durangaldea fabrican solidaridad

<https://www.deia.eus/bizkaia/durangaldea/2020/03/27/coles-durangaldea-fabrican-solidaridad/1027405.html>
Deia, 2020-03-27

Durangaldea pone en marcha sus impresoras 3D para crear mascarillas de seguridad

<http://www.durangon.com/durangaldea-pone-en-marcha-sus-impresoras-3d-para-crear-mascarillas-de-seguridad/>
Durangon, 2020-03-27

Alumnos-as de Lauaxeta, ganadores del concurso Fair Saturday cuentos contra el racismo

Gaur Egun y Teleberri
ETB 1 y ETB 2, 2020-07-27



19-20



LAUAXETA
IKASTOLA